



## **GAINTZAKO UDALA**

### *Kobrantza iragarkia*

Udalerrri honetako zergadunei eta gainontzeko interesatu guztiei jakinarazi nahi zaie 2018ko apirilaren 23tik 2018ko maiatzaren 18ra arte, 2017eko 2. seihilabeteko zabor-bilketa tasaren agiriak borondatez ordaintzeko epea zabalik dagoela.

Helbideratutako ordainagiriak baimenduriko erakunde eta kontuan epearen lehenengo egunean zordunduko dira.

Helbideratu ez diren erreziboak posta arruntaz bidaliko dira zergadunaren helbide fiskaletara eta edoezin banketxe edo aurrezki-kutxetan ordain dezakete. Ordaintzerakoan, bidalitako ordainagiri osoa aurkeztu beharko da; une horretan hurrengo ordainagiriaren helbideratzea eskatu ahal izango da.

Erreziboak etxean jaso ez dituzten zergadunak Gaintzako Udalean bikoiztua eska dezakete, jendaurreko bulego-orduetan.

Jakinarazi nahi da, aipaturiko borondatezko epe hori amaitu ondoren, egun indarren dagoen Zergabilketako Erregelamendu Orokorrean ezarritako xedapenen arabera, premiamendu bidera joko dela eta ondorioz, gainkarguak, berandutza-interesak eta kasuan kasu, izan daitezkeen kostuak ordaindu beharko direla.

Gaintza, 2018ko apirilaren 20a.—Gaizka Olaetxea Balerdi, alkatea. (2766)